



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko azaroaren 9a

26. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den diru kopurua jar dezan Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturaren 5. mailarako beka edo laguntzari aurre egiteko 2007-2008 ikasturtean. Erretiratutako mozioa (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Merkataritzaren Kontseilu Nagusia sortu eta abian jar dezan. Akats zuzenketa (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, nekazaritza-ustiategiko titularraren edo titularren lansarien kostuak kudeaketa tekniko-ekonomikoan sartzeari buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (6. or.).

—Galdera, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hirigintza-garapen berrietan ikastetxe eta institutueterako eskaerari erantzun ahal izateko duen aurreikuspenari buruzkoa. Ana Figueras Castellano andreak egina (7. or.).

—Galdera, jakiteko Gobernuak aurreikusita ote duen Osasun Ministerioarekin harremanetan jartzea, Nafarroa izan dadin ikerketa biomedikoa sarean egiteko taldeko partaide. Ana Figueras Castellano andreak egina (7. or.).

—Galdera, Hilarión Eslavaren omenez antolaturiko ekitaldiei buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (8. or.).

—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz jarriko duen euskarazko errotulua Baluarte biltzar jauregi eta auditorioko sarrera nagusian. Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (9. or.).

- Galdera, 2007ko Udazkeneko Biraren iragarkiak gaztelania hutsez egiteari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Hezkuntzako Mahai Sektorialerako deialdia oraindik egin ez izanari buruzkoa. María Luisa Mangado Cortes andreak egina (10. or.).
- Galdera, jakiteko ea egia den Iruñeko Artzapezpikutzak betoa jarri ziela “Maitia nun zira” eta “Ene maitia” abestiei, Erriberriko eliza batean eginiko kontzertu batean. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroako ubideko III. tarteko mendi mazelan izaniko luiziak direla-eta igorritako erantzun idatzari buruzkoa. Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Sakanan enplegu antena bat sustatzeko ekimenei buruzkoa. Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (12. or.).
- Galdera, “Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen eremua” izeneko industrialdeari buruzkoa. Samuel Caro Sádaba jaunak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat aldiz baliatu den Nafarroako Gobernuak babes ofizialeko etxebizitzetan izapidetzean lehenetsunez erosteko eskubideaz. Samuel Caro Sádaba jaunak egina (13. or.).
- Galdera, irakaskuntza itundu pribatuko irakasleen lan egoerari buruzkoa. Ana Figueras Castellano andreak egina (13. or.).
- Galdera, 10/2007 Foru Legearen arabera “goi kargu” diren pertsonen buruzkoa. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Musika Kontserbatorioa egiteko kontusailari buruzkoa. María Luisa Mangado Cortes andreak egina (15. or.).
- Galdera, oinarritzko osasun laguntzako zentron sarea zabaldu eta osatu arte eraikinak egiteko asmoari buruzkoa. María Luisa Mangado Cortes andreak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Kultura Kontseiluko Artxibo eta Liburutegien Batzordeak Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka proiektuaren gainean eginiko lanari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleko erradioterapia zentroari buruzkoa. María Chivite Navascués andreak egina (17. or.).
- Galdera, higiezinaren errentamenduarengatik Nafarroako Gobernuak ordaindutako alokairuei buruzkoa. Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (18. or.).
- Galdera, Enpresa Zientzietako bosgarren maila ikasten ari diren ikasleei beka ez emateari buruzkoa. Ana Figueras Castellano andreak egina (18. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusian ekipamendua jartzeko. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (19. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusiko funtsak lekualdatzeko. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (19. or.).
- Galdera, etxebizitzetan alokairu-poltsa abian jartzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (20. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea hein batean aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

1. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea hein batean aldatzenko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea hein batean aldatzen duena**

### ZIOEN AZALPENA

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak, bere printzipio gidarien artean, honakoak ezartzen ditu: osasunaren kontzeptu integrala eta prestazioen efizientzia soziala. Hala ere, 5. artikuluan, herritarrek osasun zerbitzuak direla-eta dauzkaten eskubideen zerrenda labur bat ageri da.

Egungo egoeran, beharrezkoa da osasunari buruzko araudi orokor hori gizarteak egun eskatzen dituen prestazioen arabera egokitzea. Hala ere, herritarren eskubideen zerrenda gaurkotu beharra dago, administrazioak osasun publikoaren arloan eta, kasua bada, itunpeko osasunaren arloan, eskaini behar dituen kasuan kasuko prestazioekin koherenteak izateko.

Gainera, artikulua horren izenburua, "Herritarren eskubideak," gizarteak gaur egun eskatzen dituen prestazioen arabera gaurkotu eta egokitu beharra dago.

Osasunari buruzko maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea –laguntza-informazioari, informazio publikoari, gaixoaren, haren senideen eta hurbilekoen intimitateari eta sendagilea hautatzeari eta tratamendua dela-eta gaixoak adostasuna eta bere borondatea adierazteari dagozkien eskubide pertsonalak arautzen ditu– ere kontuan hartu beharra dago administrazioak osasunaren arloan eskaini beharreko prestazioen katalogoa gaurkotzerakoan.

Bestalde, otsailaren 21eko 71/1991 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko osasun laguntza ororenganatzea ezarri zuen. Osasuna ororenganatzearen oinarritzko printzipio hori gaurkotu beharrezkoa da, bai ikuspuntu subjektibotik, bai ikuspuntu objektibotik ere. Hau da, osasuna ororenganatzea, ongizatearen estatu batean, ezinbestez interpretatu behar da ez soilik herritar guztiei dagokien neurrian, baizik eta herritar guztiek legez exiji ditzaketen eta gizarteak eman behar dituen prestazio guztiak hartzearen ikuspuntutik ere. Osasuna salbuespenik onartzen ez duen eskubide bat da ongizatearen gizartean.

Osasun prestazioei buruzko eskubideen katalogoa gaurkotu beharra dago horrenbestez, Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legeko 5. artikuluari testu berria emanez, betiere kontuan hartuz Osasunari buruzko 11/2002 Legean ezarritako guztia eta, besteak beste, legez ezarritako kasuetan

haurdunaldiaren borondatezko eteteari dagokion osasun prestazioa ere bertan sartuz.

Eginiko azterlanetan eta estatistiketan eta emandako prestazioei buruzko datuetan agerian geratzen den eskari sozialak justifikatzen du lege ezarritako kasuetan haurdunaldiaren etetea osasun publikoan egiteko beharra.

Proposamenaren testua:

#### **Artikulu bakarra.**

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5. artikuluko 4., 5. eta 14. idatz-zatiak aldatzen dira. Hona haien testu berria:

Foru erkidegoko osasun sistema dela eta, Nafarroan egoitza duten herritarrak ondoko esku-bideen titularrak izan eta haietaz baliatu ahalko dira:

4. Aplikatzen zaizkien pronostiko- eta diagnostiko-prozedurak eta prozedura terapeutikoak irakaskuntza-, prestakuntza- edo ikerketa-proiektu baterako erabiltzen badira, horri buruz ohartaraziak izateko eskubidea. Proiektu horiek ezin izanen dira izan inolaz ere, arriskutsuak gaixoen osasunerako. Edonola ere, ezinbestekoa izanen da gaixoak bere baimena aldeztu aurretik eta idatziz ematea eta sendagileak eta kasuko osasun zentroko zuzendariak hura onartzea.

5. Gaixoak eta bere senideek eta hurbilekoek prozesuari buruzko informazio osoa eta jarraitua edukitzeko eskubidea, horren barne dela diagnostia, pronostikoa eta tratamendurako aukerak; hori guztia maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeko 2., 3. eta 4. artikuluetan ezarritako baldintzetan.

14. Gaixotasun fisiko nahiz psikiko guztien osasun estaldura orokorra edukitzeko eskubidea, legeek ezarritakoaren barruan. Gaixo batek, esku-bideen subjektu gisa, aitortuak ditu Nafarroako osasun publikoaren barruan eta itunpeko osasunaren barruan, besteak beste, haurdunaldiaren borondatezko etetea, betiere legeztatik aurreikusitako baldintzetan. Foru erkidegoko osasun administrazioa, aipamen berezia eginez lan osasunari.

#### **Xedapen iragankorra.**

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariari behar diren ebazpenak eman ditzan abian jartzeko, profesionalen kontzientzia eragozpen pertsonala, berariaz adierazitakoa, zorrotz errespetatuz, behar adinako egitura profesional bat, duintasunez emanen duena haurdunaldiaren borondatezko eteteari berez dagokion osasun zerbitzua legeztatik baldintzetan, betiere Nafarroako osasun sistema publikoaren barruan.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den diru kopurua jar dezan Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturaren 5. mailarako beka edo laguntzari aurre egiteko 2007-2008 ikasturtean.**

*ERRETIRATUTAKO MOZIOA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bileran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko ondoko mozio hau erretiratutzat jotzea: Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den diru kopurua jar dezan Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturaren 5. mailarako beka edo laguntzari aurre egiteko 2007-2008

ikasturtean. Mozio hori 2007ko urriaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Merkataritzaren Kontseilu Nagusia sortu eta abian jar dezan.**

*AKATS ZUZENKETA*

2007ko urriaren 31ko 24. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean akats bat antzeman da. Hona zuzenketa:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Merkataritzaren Kontseilu Nagusia sortu eta abian jar dezan.

Aipatu aldizkariko 8. orrialdean adierazten zen Osoko Bilkurak bazter utzi zuela mozio hori, eta akats zuzenketa honen bidez adierazi nahi da mozio hori erretiratua izan zela.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, nekazaritza-ustiatetikiko titularren edo titularren lansarien kostuak kudeaketa tekniko-ekonomikoan sartzeari buruzkoa.***JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, nekazaritza-ustiatetikiko titularren edo titularren lansarien kostuak kudeaketa tekniko-ekonomikoan sartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko kontseilariari, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Sektore ekonomiko guztietan, ekoizpen kostuen azterketa fidagarri bat izateak funtsezko

garrantzia du, lehiakortasuna hobetzeko ekintzak gauzatu ahal baitira horrela, eta funtsezkoa da, era berean, azterketa konparatu bat izatea, jakiteko zein den norberaren kokaleku erlatiboa merkatuan.

Nafarroako nekazaritza sektorean, kudeaketa tekniko-ekonomikoa eta nekazaritzako ekoizpenaren kostuen azterketa "Instituto Técnico de Gestión" deritzen esku dago utzita. Ekoizpen-kosten azterketa horietan, kontratatutako eskulanaren lansarien kostuak jasotzen dira. Hala ere, ez dira jasotzen ustiatetikiko titularren edo titularren lansarien kostuak. Kontuan hartuz nekazaritza-ustiatetikoki asko eta asko familien esku daudela, gertatzen dena da titularrak eta bere familiak ustiatetikian egiten duten lana ezkutuan gelditzen dela, eta ekoizpen-kostuetan jaso gabe.

Hori dela-eta, hau jakin nahi dut:

– Zergatik ez dira nekazaritza-ustiatetikoko titularren edo titularren lansarien kostuak kudeaketa tekniko-ekonomikoan sartzeko?

– Nafarroako nekazaritza-sektoreetako ITGek egiten duten kudeaketa tekniko-ekonomikoan nekazaritza-ustiatetikoko titularren lansarien kostuak sartzeari buruz zer jarrera du Departamentuak?

Iruñean, 2007ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hirigintza-garapen berrietan ikastetxe eta institutueterako eskaerari erantzun ahal izateko duen aurreikuspenari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hirigintza-garapen berrietan ikastetxe eta institutueterako eskaerari erantzun ahal izateko duen aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Batzordean ahoz erantzun dadin:

Aukera izan dugu Mendillorriko Pedro de Ursúa institutua zer egoeratan dagoen ezagutzeko, eta

aukera izan dugu ikastetxe horretako irakasleekin, irakasleak ez diren langileekin eta gurasoekin beren kezkez mintzatzeko. Horiek horrela, argi gelditu zaizkigu talde honentzat oso garrantzitsuak diren zenbait gai.

Jakitera eman zaigunez, orain dela zortzi urte baino gehiago gurasoen elkarteko guraso batzuek zenbait ekimen gauzatu zituzten Hezkuntza Departamentuan, jakinarazteko nabarmena zela txikia zela hastekoa zen obra. Gaur egun 300 ikasle inguru daude, eta 2010ean 1000 baino gehiago izanen dira.

Gaur egun ez dakigu zer aurreikuspen dituen Departamentuak gai honetan. Iruñerrian izan den hirigintza-garapena ikusita, kezka garria da Gobernuak izan duen aurreikuspen falta.

Eta agerikoa da, nire iritziz, Gobernuak egiten ez dituen planak ekimen pribatuak egiten dituela.

Hori dela eta, galdera honi erantzuna emateko eskatzen dut:

Zer asmo zehatz ditu Hezkuntza Departamentuak egiteko diren lanei eta haien datei buruz foru erkidegoko hirigintza garapen berrietako eskolen eta institutuen beharrari aurre egiteko?

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, jakiteko Gobernuak aurreikusita ote duen Osasun Ministerioarekin harremanetan jartzea, Nafarroa izan dadin ikerketa biomedikoa sarean egiteko taldeko partaide.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Gobernuak aurreikusita ote duen Osasun Ministerioarekin harremanetan jartzea, Nafarroa izan dadin ikerketa biomedikoa sarean egiteko taldeko partaide.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Osasun kontseilariari, Batzordean ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak ikerketa biomedikoko zentro bat sortu behar omen du; kontseilariaren bidez eman zuen horren berri. Esandakoaren arabera, bikoitza omen da helburua. Batetik, zenbait gaixotasuni buruzko ikerkuntza sustatuko da: bihotz-hodietako gaixotasunak, onkologikoak, digestio-aparatukoak, nerbio-sistemakoak, burukoak eta arnas aparatukoak. Bestetik, planaren bitartez Nafarroak I+Garen arloan duen kapital teknologikoa handituko da zenbait arlotan, hala nola genetikan, bioingeniaritzan, nanoteknologian, farmazi ikerkuntzan eta beste batzuetan.

Osasun Ministro Bernat Soriak, urriko lehenbiziko egunetan, berak duen programa zientifikoaren ildo nagusiak aurkeztu zituen Senatuan; besteak

beste, esan zuen Ministerioaren borondatea dela I+G+B estrategia bultzatzea eta Espainiako ikerketa zentro handiak osasun erakunde handiekin inplika daitezen saiatzea.

Soria Ministroak iragarri zuenez, azaroan ikerketa biomedikoko beste bi zentro eratuko dira; guztira 441 ikertzaile izanen dira, 55 taldetan banatuak, 8 erkidegotakoak.

Proposamenek itxuraz puntu komunak dituzte, honakoei erantzutea nahi dut:

Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak ba al du Osasun Ministerioarekin hitz egiteko asmorik, Nafarroako Foru Komunitateak ikerketataldean parte har dezan?

Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak eratu hurren diren eta sarean lan egingen duten ikerketa biomedikoko bi zentroen hornez gaindiko ikerketan egoteko?

Iruñean, 2007ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

**Galdera, Hilarión Eslavaren omenez antolaturiko ekitaldiei buruzkoa.****PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Hilarión Eslavaren omenez antolaturiko ekitaldiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Hilarión Eslavari egin omenaldia dela-eta, ondoko galdera egingen du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Zergatik antolatu zuen Nafarroako Gobernuak meza bat Hilarión Eslava musikari handiari omenaldia egiteko prestatu zituen jardueren artean?

Iruñean, 2007ko urriaren 22a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurak



## **Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz jarriko duen euskarazko errotulua Baluarte biltzar jauregi eta auditorioko sarrera nagusian.**

### *AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak noiz jarriko duen euskarazko errotulua Baluarte biltzar jauregi eta auditorioko sarrera nagusian.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Vianako Prin-

tzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

2005eko apirilaren 13an, parlamentu honetako Kultura eta Turismo Batzordeak Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernua premiatzeko beharrezko urratsak egin zitzaizkien Baluarte sarrera nagusian gaztelaniaz bakarrik zegoenaren modu eta tamaina bereko errotulazioa euskaraz ere jar zezan.

Hala ere, gaur egun, Nafarroako Gobernuak ez du euskarazko errotulaziorik jarri, behar zuen bezala, Nafarroako zentro kulturalik handieneko sarrera nagusian.

Hori dela eta, hauexekin jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak noiz jarriko du euskarazko errotulazioa Baluarte biltzar jauregi eta auditorioko sarrera nagusian, hau da, gaztelaniaz bakarrik dagoenaren modu eta tamaina bereko errotulazioa?

Iruñean, 2007ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, 2007ko Udazkeneko Biraren iragarkiak gaztelania hutsez egiteari buruzkoa.**

### *PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, 2007ko Udazkeneko Biraren iragarkiak gaztelania hutsez egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Udazkeneko Bira Programa dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Urriaren 19an Nafarroako egunkari nagusietan Udazkeneko Bira 2007ko iragarkiak ikusi genituen.

Nafarroa osorako den kanpaina izanik, zergatik egin dira gaztelera hutsez iragarki horiek?

Iruñean, 2007ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Hezkuntzako Mahai Sektorialerako deialdia oraindik egin ez izanari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako Mahai Sektorialerako deialdia oraindik egin ez izanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari M<sup>a</sup> Luisa Mangado Cortes andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azaroan gaude dagoeneko eta komunikabideetan hezkuntza-sektoreko langileen eskakizunak agertu direnez gero, foru parlamentari honek ondoko ahozko galdera aurkeztu du:

1.- Zergatik ez da oraindik egin Hezkuntzako Mahai Sektorialerako deialdia?

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Luisa Mangado Cortes

## **Galdera, jakiteko ea egia den Iruñeko Artzapezpikutzak betoa jarri ziela “Maitia nun zira” eta “Ene maitia” abestiei, Erriberriko eliza batean eginiko kontzertu batean.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea egia den Iruñeko Artzapezpikutzak betoa jarri ziela “Maitia nun zira” eta “Ene maitia” abestiei, Erriberriko eliza batean eginiko kontzertu batean.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Kultur 2007 programa dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun diezaion.

Egia al da «Maitia nun zira» eta «Ene maitia» abestiei betoa ezarri ziela Iruñeko Artzapezpikutzak, "Orbela Otxoteak" Erriberriko eliza batean Nafarroako Gobernuko Kultura Saileko Kultur 2007 programaren barruan eman behar zuen kontzertu batean?

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Nafarroako ubideko III. tarteko mendi mazelan izaniko luiziak direla-eta igorritako erantzun idatziari buruzkoa.**

### *TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako ubideko III. tarteko mendi mazelan izaniko luiziak direla-eta igorritako erantzun idatziari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Parlamentari honek galdera egin zuen Nafarroako ubideko III. tarteko mendi mazelan izaniko luiziei buruz; departamentuak, igorritako erantzunean dioenez, ez omen du luizi horien berri. Erantzun hori hain bitxia denez eta ez dirudenez onargarria departamentu horrek erantzun hori ematea, honako ahozko galdera egin dut:

Zerk eragin du hain erantzun hutsala? Nafarroako Gobernuko Herri Lan kontseilari izateak eragotzi egiten al dio Nafarroako ubidearen eraikuntzari eta abian jartzeari eragiten dieten gertakarien berri izatea?

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

## **Galdera, Sakanan enplegu antena bat sustatzeko ekimenei buruzkoa.**

*TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Sakanan enplegu antena bat sustatzeko ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko

tzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Berrikuntza, Industria eta Enplegu kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Sakanako enplegu antenaren egoerari buruzko idatzizko laugarren galderaren erantzunik jaso ez duenez, parlamentari honek ondoko ahozko galdera aurkeztu du:

Zer ekimen sustatu ditu Departamentuak Sakanan enplegu antena bat sustatzeari dagokionez? Zenbat lanpostu sortu dira enplegu antena horren bidez? Eta Ufesa eta Igartex enpresetako krisi-espedituek kaltetutako zenbat langilerentzat izan da onuragarria?

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

## **Galdera, “Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen eremua” izeneko industrialdeari buruzkoa.**

*SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, “Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen eremua” izeneko industrialdeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel

Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1. Gure erkidegoaren eta eskualdeen garapen orekatua kontuan hartuta, nola justifikatzen du zure departamentuak “Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen eremua” izeneko 1.189.000 metro koadroko industrialde bat egiteko proposamena, Obanoseko eta Gareseko planeamenduetan jasotako 800.000 metro koadro inguruko industrialdearen ondo-ondoan?

2. Industria-arloko zer erabileratarako aurreikusi du Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak erabiltzea “Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen eremua” izeneko poligonoa, zeina udalez gaindiko plan sektorial gisa onartu baitzen 2006ko abenduaren 28an?

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Galdera, jakiteko zenbat aldiz baliatu den Nafarroako Gobernuaren babes ofizialeko etxebizitzaren izapidetzearen lehentasunez erosteko eskubideaz.**

*SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zenbat aldiz baliatu den Nafarroako Gobernuaren babes ofizialeko etxebizitzaren izapidetzearen lehentasunez erosteko eskubideaz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2003tik hona, zenbat aldiz baliatu da Nafarroako Gobernuaren, Etxebizitza Departamentuaren bidez, babes ofizialeko etxebizitzaren izapidetzearen lehentasunez erosteko eskubideaz? Zer lekutan edo higiezinetan baliatu da eskubide horretaz?

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Galdera, irakaskuntza itundu pribatuko irakasleen lan egoerari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, irakaskuntza itundu pribatuko irakasleen lan egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Galdera:

Irakaskuntza pribatu itunduko irakasleen ordezkari batzuek zenbait gauza galdetu dizkidate beren lan egoerari buruz, eta horiei erantzutea nahi nuke. Honakoak dira, funtsean:

– Ikastetxe pribatuekin egiten diren itunetan, lan saioak argitzea eta argi eta garbi zehaztea 23 lan saioak.

– Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren funtsak. Ministerioak Nafarroako irakaskuntza itunduarentzat ematen duen diruaren erabilerari buruzko informazio zehatza.

– Administrazioak kontrola dezala, ikuskaritzaren bidez, betetzen direla bai lege-araudia, bai

ikastetxe itunduen hobekuntzarako akordioan sinatutakoa.

Zer proposatzen du Departamentuak goian aipatutako gai horietako bakoitzari buruz?

Nola jokatzeko asmoa du Departamentuak goian aipatutako gai horietako bakoitza bete dadin?

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, 10/2007 Foru Legearen arabera “goi kargu” diren pertsonen buruzkoa.**

### **PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, 10/2007 Foru Legearen arabera “goi kargu” diren pertsonen buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkion:

1.- Apirilaren 4ko 10/2007 Foru Legeko 1. artikuluekin bat –foru lege horrek azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 2., 4., 7. eta 9. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatu zituen– zenbat pertsonak dute uneotan “goi kargu” izaera? Nor dira eta zer kargu dute?

2.- Zenbat pertsona ari dira jasotzen uneotan, 2007ko urrian, “kargu-uzteen ordainsaria” izeneko hileroko prestazio ekonomikoa, zeina azaroaren

4ko 19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 2. idatzatian –10/2007 Foru Legeko 2. artikulua emandako testuarekin– baitago ezarrita? Nor dira eta zer kargu izan zuten?

3.- Zenbat pertsona ari dira jasotzen uneotan, 2007ko urrian, “kargu-uzteen ordainsaria” izeneko hileroko prestazio ekonomikoa, zeina azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 3. idatzatian –10/2007 Foru Legeko 3. artikulua emandako testuarekin– baitago ezarrita? Nor dira eta zer kargu izan zuten?

4. Nafarroako foru ogasunaren kargura ordaintzen diren hileroko prestazio ekonomiko horiek (19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak) zenbat egiten dute guztira (enpresa publikoak, erakunde autonomoak eta, oro har, administrazio guztia barne dela)?

5.- Zenbat pertsona ari dira jasotzen uneotan bai foru erkidegoko administrazioan, bai bere erakunde publikoetan, % 25eko osagarri pertsonala, zeina azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 5. idatz-zatian –10/2007 Foru Legeko 2. artikulua emandako testuarekin– baitago ezarrita? Nor dira eta zer kargu dituzte gaur egun? Eta zer kargu izan zituzten lehenago?

6. Nafarroako foru ogasunaren kargura ordaintzen diren hileroko prestazio ekonomiko horiek (19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 5. idatz-zatia) hala foru administrazioarenak nola haren erakunde autonomoenak, zenbat egiten dute guztira?

Iruñean, 2007ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, Musika Kontserbatorioa egiteko kontusailari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Musika Kontserbatorioa egiteko kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

2007ko aurrekontuetan, "Eskolatze baldintzen hobetzea irakaskuntzako maila guztietan" izeneko programako "Eraikuntzak eta ekipamendua" proiektuan "Musika Kontserbatorioa" izeneko kontusail bat dago aurreikusia, 2.000.000 eurokoa.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 41120-410001-6020-325103 kontusailaren aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta bete gabekoa.

– Kontusail horren kargura eginiko jarduerak eta ordaindutako diru kopuruak.

Iruñean, 2007ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

## **Galdera, oinarrizko osasun laguntzako zentrozen sarea zabaldu eta osatu arte eraikinak egiteko asmoari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, oinarrizko osasun laguntzako zentrozen sarea zabaldu eta osatu arte eraikinak egiteko asmoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkezten dizkio Nafarroako

Gobernuko Osasun Departamentuko kontseilari andreaki, idatziz erantzun ditzan:

2007ko irailaren 27an, kontseilariak agerraldia egin zuen legebiltzar honetako Osasun Batzordean, datozen lau urteetan departamentuak aurrera eramane nahi dituen ildo nagusiei buruz informatzeko.

Oinarrizko laguntzako zentro berriei dagokienez, aipatu zituen, besteak beste, Antsoaingoa, Buztintxurikoa, Tutera III eta Sarrigurengoa. Aldiz, ez zuen aipatu Leitzan osasun zentro berria eraikitzeko asmorik. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Aipatu osasun zentroz gain, zer beste osasun zentro eraiki nahi dira oinarrizko osasun laguntzako zentrozen sarea zabaldu eta osatu arte?

– Ba al dago asmorik Leitzan osasun zentro berria eraikitzeko? Hala bada, noizko dago aurreikusita funtzionamenduan jartzea eta zer espezialitate hartuko ditu?

Iruñean, 2007ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

## **Galdera, Nafarroako Kultura Kontseiluko Artxibo eta Liburutegien Batzordeak Nafarroako Liburutegia eta Fimoteka proiektuaren gainean eginiko lanari buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kultura Kontseiluko Artxibo eta Liburutegien Batzordeak Nafarroako Liburutegia eta Fimoteka proiektuaren gainean eginiko lanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros



**GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurrak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Liburutegi Nagusia eta Filmotekaren proiektua dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Zein izan da Nafarroako Kultura Kontseiluaren Liburutegi Batzordeak Liburutegi Nagusia eta Filmotekako proiektuan egin duen lana?

Iruñean, 2007ko urriaren 24a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

**Galdera, Nafarroako Ospitaleko erradioterapia zentroari buruzkoa.****MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitaleko erradioterapia zentroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena:

Urriaren 24an egunkarietan agertu denez, Nafarroako Ospitaleko erradioterapia zentro berria, 4 urteko atzerapenaren ondotik, heldu den astelehenean hasiko da funtzionatzen.

Horregatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako galderak aurkeztu ditu, idatziz erantzun daitezten:

– Zenbat ordaindu da guztira erradioterapia zentroaren eraikinagatik eta haren ekipamenduetatik?

– Zein izan zen eraikinaren eta haren ekipamenduen lizitazio-prezioa?

– Egin al da aurrekontu-aldaketarik hasieran onetsitako kostuetan? Zenbat? Aldaketa horien zenbatekoak zen izan dira? Nork onetsi zituen?

– Zenbat ordaindu da guztira, azkenean, instalatutako aparatu bakoitzagatik?

– Egin al da aparatuen mantentze-lanetarako kontraturik? Zein enpresarekin? Zer zenbatekorekin? Zenbat denborarako?

– Instalatutako aparatuek ba al dute bermerik? Zenbat denborarako? Noiz arte?

Iruñean, 2007ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

## **Galdera, higiezin errentamenduarengatik Nafarroako Gobernuak ordaindutako alokairuei buruzkoa.**

*AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, higiezin errentamenduarengatik Nafarroako Gobernuak ordaindutako alokairuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Zenbat alokairu ordaintzen ditu Nafarroako Gobernuak higiezin errentamenduarengatik? Erants bitez higiezin motari eta bertan kokaturiko zerbitzuari edo zerbitzuei buruzko informazioa.

2. Zenbat ordaintzen du hiler alokairuarengatik, eurotan, foru erkidegoko administrazioak? Erants bedi, gutxienez ere kopurua eta ehunekoa adieraziz, entitate edo pertsona pribatuei eta entitate publikoei edo sektore publikoaren partaidetza dutenei (kasu horretan, izenak edo sozietateen izenak zehaztuta) ordaintzen zaienari buruzko informazioa.

Iruñean, 2007ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

## **Galdera, Enpresa Zientzietako bosgarren maila ikasten ari diren ikasleei beka ez emateari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Enpresa Zientzietako bosgarren maila ikasten ari diren ikasleei beka ez emateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau idatziz erantzutea eskatzen du:

Zioen azalpena:

2006/2007 ikasturtean, Enpresa Zientzietako (Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza) bosgarren mailako ikasle baten beka eskari bat aztertu zen, eta Eskola Zuzendaritza Nagusiak ukatu egin zion beka.

Justifikazioa hau izan zen: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak homologatu gabeko titulu bati dagozkion ikasketak egiteagatik.

Unibertsitate Publikoari ospea ematen diolako, eta ikasketa horietako ikasleentzat eta irakasleentzat adore-emaile delako, uste dut Departamentuak gaia berriro aztertu eta bosgarren mailari dagokion beka eman egin beharko lukeela.

Hori dela eta, galdera honi erantzutea nahi dugu:

Hezkuntza Departamentuak berretsi egiten al du goian aipatutako espezialitateko bosgarren mailan bekarik ez emateko erabakia?

Bekarik ez ematea erabakiz gero, arrazoien azalpen zehatza nahi dugu.

Iruñean, 2007ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusian ekipamendua jartzeko.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusian ekipamendua jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Liburutegi Nagusia eta Filmotekaren proiektua dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

– Zergatik behar du seihileko oso bat Kultura Departamentuak Liburutegi Nagusiko ekipamendua ezartzeko? Ez da hilabete batean egiten ahal?

Iruñean, 2007ko urriaren 25a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusiko funtsak lekualdatzeko.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusiko funtsak lekualdatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Liburutegi Nagusia eta Filmotekaren proiektua dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

– Zergatik behar du seihileko oso bat Kultura Departamentuak Liburutegi Nagusiko funtsak leku-aldatzeko? Ez da hilabete batean egiten ahal?

Iruñean, 2007ko urriaren 25a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

**Galdera, etxebizitzaren alokairu-poltsa abian jartzeari buruzkoa.****MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, etxebizitzaren alokairu-poltsa abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dadin:

2002ko urtarrilean, Nafarroako Gobernuak, sozietate instrumental baten bitartez, etxebizitza

erabilien alokairu-poltsa bat jarri zuen abian, erabilietako etxebizitzak alokairuan jartzea sustatzeko eta horren kudeaketarako.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Lehena. Alokairu-poltsa abian jarri denetik, zenbat etxebizitza laga zaizkio sozietate instrumentalari, alokairuan emateko? Etxebizitza horien kokagune geografikoa, herrikoa eta auzokoa adierazia.

Bigarrena. Lagatako etxebizitza horietako zenbat alokatu dira?

Hirugarrena. Etxebizitza horietako zenbatek darama hiru urte baino gutxiago eraikita? Etxebizitza horien kokagune geografikoa, herrikoa eta auzokoa emana.

Laugarrena. Etxebizitza horietako zenbat egon dira hutsik bost urte baino gehiago?

Bosgarrena. Alokairurako zenbat eskari aurkeztu dira?

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro